

25 urte  
años



elkarkidetza<sup>®</sup>  
pentsioak

elkarkidetza

---

## Elkarkidetza BGA Eren ESTATUTUAK

---





## Elkarkidetza BGAEn ESTATUTUAK

### I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. Artikulua. Eraketa eta izena.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legearen eta aplikagarriak diren gainerako arauen babesean, Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde izenez (aurrerantzean Erakundea), Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde hau eratzten da, borondatez eta irabazi asmorik gabe. Erakundea Euskadiko Institutio, Erakunde eta Sozietate Publikoetako eta hauekariko batek euren langileekin Elkarkidetzarekiko zituzten betebeharreran ondorengo diren edozein entitateetako (aurrerantzean, Institutioak) langileentzat eratzten da.

Hura eratu duten subjektuen izaerari jarraituz, Elkarkidetza BGAE enpleguko gizarte aurreikuspen erakunde moduan eratzten da.

#### 2. Artikulua. Denbora eremua, lurralde eremua eta funtzio eremua.

Erakundearen iraupeneko epea mugagabea izango da eta haren lurralde eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da. Haren jarduera eremua, berriz, Estatutu hauen eraginetarako Institutio bezala izendatutako erakundeak.

Erakundeak izaera juridiko propioa izango du, osoa eta independentea. Halaber, ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, edukitzeko, zamatzeko eta besterentzeko gaitasun osoa izango du, bai eta obligazioak hartzekoa eta dituen helburuekin zerikusia duten ekintzak eta kontratuak egitekoa.

#### 3. Artikulua. Erakundearen helburua.

Hau da Erakundearen helburua:

3.1. Esleituta dituen fondoan bidez, derrigorrezkoak diren erakundeek ematen dituzten prestazioen prestazio osagarri batzuk eskaintzea.

3.2. Pentsio fondoan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko beste erakunde batzuetako ondareak kudeatzea Institutioetako langileen kontingentziak estaltzeko.

3.3. Euskal sektore publikoaren barruko beste pentsio planen eta antzeko sistemen prestazioak aseguratzea.

3.4. Planek, fondoek eta BGAEk, aseguratuta egon edo ez, eskuesten dizkioten beste funtzio guztiak.

3.5. Aholkularitza zerbitzua eskaintzea bere bazkideei.

3.6. Araudiak egiten uzten dizkion gainerako funtzio guztiak betetzea; betiere, dituen helburuak lortzeko beharrezkoak badira edo helburutzat bazkideei zerbitzu hobea eskaintzea badute.

#### **4. Artikulua. Erakundearen helbidea.**

Erakundearen helbidea Gasteizen egongo da, Ramon y Cajal kalea 7-9an; betiere, Erakundearen Gobernu Organoei besterik izendatzen ez duten bitartean.

## **II. KAPITULUA. ELEMENTU PERTSONALAK**

#### **5. Artikulua. Zerrenda.**

Elementu pertsonalen bereizketa hau izango da:

- Bazkide babesleak, bazkide osoak, bazkide pasiboak eta onuradunak.

### **LEHEN ATALA.- BAZKIDE BABESLEAK**

#### **6. Artikulua. Definizioa.**

Erakundera atxikitako Instituzioak izango dira bazkide babesleak.

#### **7. Artikulua. Onartua izateko baldintzak.**

Baldintza hauek bete beharko dituzte Erakundearen bazkide babesle izan nahi duten Instituzioek: organo eskudunak horri buruzko berariazko erabakia hartu ondoren, Erakundera atxikitzeko eskaera egitea, eta Estatutu hauek onartzen dituztela adieraztea, hala badagokio, Harrera Eskaria izenpetuta. Azkenik, Erakundearen Gobernu Batzordeak eskaera onartu egin beharko du.

Eskaerei erantzuteko gehienezko epea 90 egun naturalekoa izango da hura aurkezten denetik; eta epe hori igarota berariazko erabakirik hartu gabe, eskaera onartutzat joko da. Gobernu Batzordeak eskaera ez onartzeko erabakia hartuko balu, arrazoitu egin beharko luke.

#### **8. Artikulua. Bajak.**

Bazkide babesleak baja izango dira hauetako kausaren bat ematen bada:

- Organo eskudunak berariazko erabakia hartzea.
- Erakundea deuseztatu eta desegiteagatik.

## 9. Artikulua. Eskubideak eta obligazioak.

Hauek dira, beren partaidetza sozial eta ekonomikoaren ondorioz, bazkide babesleek dituzten eskubideak eta obligazioak:

### 9.1. Eskubideak:

- a) Batzar Nagusiaren bilkuretan Estatutu hauetako III. kapituluan aurreikusten den moduan parte hartzea.
- b) Gobernu organoetako karguak aukeratzea eta horietarako aukeratuak izatea, Estatutu hauetako III. kapituluan horretarako berariaz ezartzen den sistemaren bidez.
- c) Erakundearen egoeraz informatua izatekoa. Informazioa hitzez zein idatziz eskatu ahalko dute, eta, informazio hori emateak Erakundearen legezko interesak arrisku larrian jar ditzakeenean izan ezik, Gobernu Batzordeak ezingo dio uko egin informazioa emateari.
- d) Estatutu hauek, Prestazioen Araudiak eta aplikagarriak diren gainerako lege arauak aitortzen dizkieten gainerako guztiak.

### 9.2. Obligazioak:

- a) Haien kargura ezartzen diren ekarpenak egitea, eta jardunean dituzten bazkide osoei dagozkien kuotak haien nominetatik deskontatu eta Erakundeari ordaintzea.
- b) Erakundera atxikita dauden langileen inguruan gertatzen diren aldaketez informatzea; horiek haren funtzionamenduan eragin badezakete.
- c) Gobernu organoek balio osoz hartutako erabakiak betetzea.
- d) Lege arauak, Estatutuak eta erregelamenduzko arauak betetzea.

## BIGARREN ATALA.- BAZKIDE OSOAK

### 10. Artikulua. Definizioa.

Bazkide osoak izango dira Erakundeko bazkide babesleetako langileak; betiere, Erakundera atxikita badaude eta bazkide oso gisa onartuak badira Estatutu hauetako 11. Artikuluaaren arabera. Hori guztia Prestazioen Araudian araututakoaren kalterik gabe.



badu; edo, aipatutako harremanari eutsi gabe, Erakundera kotizatzen jarraitzeari uko egiten badio.

### **11. Artikulua. Onartua izateko baldintzak.**

Bazkide babesleentzat lan egiten dutenak Erakundeko bazkide oso izan daitezke baldin eta dagokion Atxikitze Buletina bete eta Erakundeko Gobernu Batzordeak hura onartzen badu; betiere, Prestazioen Araudian araututakoaren kalterik gabe. Paragrafo honetan araututakoa ez zaie Euskal Autonomia Erkidegoaren zerbitzura dauden langileei aplikagarri izango, eta, horien kasuan, beren lan baldintzei buruzko araudiari eta aplikagarria zaien Hitzarmen Kolektiboan erabakitakoari lotu beharko zaio.

Eskaerei erantzuteko gehienezko epea 90 egun naturalekoa izango da hura aurkezten denetik; eta epe hori igarota berariazko erabakirik hartu gabe, eskaera onartutzat joko da. Gobernu Batzordeak eskaera ez onartzeko erabakia hartuko balu, arrazoitu egin beharko luke.

Lan egiten duen Instituzioan entregatu beharko du bazkide osoak Atxikitze Buletina, eta horrek Erakundeari bidali beharko dio hogeita hamar eguneko epean. Hura Erakundean entregatzeko aukera ere izango da, eta, kasu honetan, hark emango dio horren berri dagokion bazkide babesleari.

Atxikitze Buletinak informazio hauek jasoko ditu: eman ahal diren estaldurak zehazteko beharrezkoa den informazio guztia eta egiazkoa eta baliaezintasuneko prestazioak aitorturik dituen adierazteko deklarazioa. Atxikitze Buletina osorik erantzun beharko du atxiki nahi duenak.

Erakundeko bazkide osoa izateko eskubidea langileek Instituzioan sartzen diren unetik gauzatu ahalko dute, baldin eta lan harreman edo harreman estatutario finkoz badaude harekin lotuta. Aldi baterako lan harremana duten langileek Instituzioan sartzen diren unetik edo beren Hitzarmen edo Akordio Kolektiboan horretarako ezarritako epea igarotakoan izango dute eskubidea, Erakundeari bere onarpenerako jakinarazi behar zaiolarik.

### **12. Artikulua. Bajak.**

Bazkide osoak baja izango dira:

- Bazkide aktiboak eta etendura egoeran dauden bazkideak bazkide pasibo izatera igarotzean.
- Heriotzagatik.
- Estatutu hauetako VI. Kapituluan jasotakoaren arabera, kaleratua izatean.
- Erakundea deuseztatu eta desegiteagatik.
- Hurrengo artikuluari jarraiki, lanpostua utzi eta bere eskubideak Enplegu Aurreikuspeneko beste Erakunde batera eraman izanagatik.

### 13. Artikulua. Eskubideak eta obligazioak.

Hauek dira, beren partaidetza sozial eta ekonomikoaren ondorioz, bazkide osoek dituzten eskubideak eta obligazioak:

#### 13.1. Eskubideak:

- a) Batzar Nagusiaren bilkuretan Estatutu hauetako III. kapituluan aurreikusten den moduan parte hartzea.
- b) Gobernu organoetako karguak aukeratzea eta horietarako aukeratuak izatea, Estatutu hauetako III. kapituluan horretarako berariaz ezartzen den sistemaren bidez.
- c) Erakundean zer egoeratan dauden jakitekoa. Halaber, Erakundeari buruzko informazioa eskatu ahalko dute hitzez zein idatziz, eta, informazio hori emateak Erakundearen legezko interesak arrisku larrian jar ditzakeenean izan ezik, Gobernu Batzordeak ezingo dio uko egin informazioa emateari.
- d) Erakundeko partaide izatearen ziurtagiria, eta, Erakundean zer egoeratan dauden ziurtatzen duen agiria eskatzea.
- e) Bere eskubide ekonomikoak beste Aurreikuspeneko Erakunde batera mobilizatzea, ahal bada enplegu aurreikuspeneko erakunde batera. Horrela ez bada, bestelako aurreikuspen plan batera eraman ahal izango dira, betiere jatorrizko BGAEaren Estatutuetan aldeztu aurretik zehazten diren prestazioak jasotzeko baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira. Halaber, Erakunde berriak eskubideak mobilizatzeke baldintza berdinak ezarrita eduki beharko ditu. Bazkideak bere eskubide ekonomikoak mobilizatuko ditu soilik jatorrizko instituzioan baja hartzen badu.
- f) Beste enplegu aurreikuspeneko Erakunde batek onartutako eskubide ekonomikoak Elkarkidetza BGAEra mobilizatzea, Gobernu Batzordeak ezarritako baldintzei jarraiki.
- g) Lege arauak, Estatutu hauek eta Prestazioen Araudiak aitortzen dizkieten gainerako guztiak.

#### 13.2. Obligazioak:

- a) Haien kargura ezartzen diren ekarpenak egitea.
- b) Norberarengan edo familian gertatzen diren aldaketen berri ematea, horiek gertatu eta ondorengo bi hiletan.
- c) Erakundeko Gobernu organoek balio osoz hartutako erabakiak betetzea.
- d) Lege arauak, Estatutuak eta erregelamenduzko arauak betetzea.

**14. Artikulua. Definizioa.**

Erakundearen bazkide pasibo izango dira haien aldeko prestazioak (erretiroa eta ezintasuna) jasotzeko eskubidea eskuratu duten pertsona fisikoak. Prestazio horiek jasotzeko eskubideak jasota egon beharko du Erakundearen Estatutuetan eta Prestazioen Araudian.

Hildako bazkide oso edota pasiboaren kausaduna izango da onuradun, Erakundearen eskubide ekonomikoen hartzekodun bilakatuz. Izaera hori izango dute, Erakundearen Prestazioen Araudian jasotako ordenari jarraiki izendatutako pertsonak.

**15. Artikulua. Onuradun edo bazkide pasibo izaera eskuratzea.**

Dagokion prestazioaren ordainketa eragiten duen gertakaria jazo eta Erakundeko Gobernu Batzordeak hala onartzean eskuratuko da onuradun edo bazkide pasibo izaera.

**16. Artikulua. Bajak.**

Bazkide pasiboek eta onuradunek baja jasoko dute arrazoi hauetakoren batengatik:

- Prestazioak amaitzean.
- Heriotzagatik.
- Estatutu hauetako VI. Kapituluaren jasotakoaren arabera, kaleratua izatean.
- Erakundea deuseztatu eta desegiteagatik.

**17. Artikulua. Eskubideak eta obligazioak.**

Hauek dira, beren partaidetza sozial eta ekonomikoaren ondorioz, bazkide pasiboek eta onuradunek dituzten eskubideak eta obligazioak:

**17.1. Eskubideak:**

- a) Prestazioak jasotzekoa, Prestazioen Araudian araututakoarekin bat etorritz.
- b) Erakundean barruan zer egoeratan dauden jakitekoa. Halaber, Erakundeari buruzko informazioa eskatu ahalko dute hitzez zein idatziz, eta, informazio hori emateak Erakundearen legezko interesak arrisku larrian jar ditzakeenean izan ezik, Gobernu Batzordeak ezingo dio uko egin informazioa emateari.
- c) Erakundeko partaide izatearen ziurtagiria, eta, Erakundean zer egoeratan dauden ziurtatzen duen agiria eskatzea.

d) Eskubide ekonomikoak mobilizatzea, soilik Erakundea deuseztatu edota desagertzen bada, 50. artikuluari jarraiki.

e) Lege arauak, Estatutu hauek eta Prestazioen Araudiak aitortzen dizkieten gainerako guztiak.

#### 17.2. Obligazioak:

a) Prestazioa sor dadin eskatzen den dokumentazio guztia bidaltzea.

b) Norberarengan edo familian gertatzen diren aldaketen berri ematea, horiek gertatu eta ondorengo bi hiletan.

c) Erakundearen Gobernu organoek balio osoz hartutako erabakiak betetzea.

d) Lege arauak, Estatutuak eta erregelamenduzko arauak betetzea.

### LAUGARREN ATALA.- ARAU OROKORRAK

#### 18. Artikulua. Eskubideak gauzatzea eta obligazioak ez betetzea.

Erakundeko elementu pertsonal bakoitzari dagozkion eskubideak gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da harekin diren obligazioak egunean beteta izatea.

Aipatutako taldeek ez badituzte atal honetan ezartzen diren obligazioak betetzen, Estatutu hauetako VI. kapituluan ezarritako erantzukizunez gain, oso-osorik hartuko dituzte beren gain gertakarien erantzukizuna eta obligazioak ez betetzeagatik sor daitezkeen ondorioak.

Bazkide osoak, pasiboak edo onuradunak izango dira, prestazioak jasotzeko eskubidea sortzen denean, ematen dituzten datuen egiazkotasunaren erantzuleak.



### III. KAPITULUA. GOBERNU ORGANOAK

#### 19. Artikulua. Gobernu Organoak.

Organo hauek eramango dute Erakundearen Gobernu:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Gobernu Batzordea.

#### LEHEN ATALA.- BATZAR NAGUSIA

#### 20. Artikulua. Osaketa eta banaketa.

Batzar Nagusia Erakundeko gobernu organo gorena da, lau urtean behin aukeratuko da, eta ehun ordezkari osatuko dute, honela banatuta:

- Bazkide babesleak: Berrogeita hamar ordezkari, aldi berean, honela banatuta:
  - Euskadiko Udalerrien Elkarteak (EUDEL) hogeita hamar ordezkari izango ditu.
  - Euskadiko Foru Aldundi bakoitzak bost ordezkari izango ditu.
  - Toki eta Foru Administrazioaren akordioaz bestelako atxikitze-akordioa duten kolektiboek bost ordezkari izango dituzte. Haien bazkide osoen kopuruarekiko proportzionalki banatuko dira, atxikitako kolektiboen pisu ekonomikoaren arabera haztatuz.
- Bazkide osoak: Berrogeita hamar ordezkari izango dituzte, eta haien banaketa Sindikatuek hauteskunde sindikaletan eskuratutako ordezkariaren arabera proportzioan egingo da, atxikitako Instituzioen barruko kolektiboek duten garrantzia haztatuz.

Ordezkarien kopurua eta horien banaketa aldatzeko aukera izango du Batzar Nagusiak berak, etorkizunean beste instituzioren bat atxikitzen bada. Kasu guztietan, ordea, bazkide osoen ordezkariak aurreko paragrafoan adierazitako banaketari eutsiko dio.

#### 21. Artikulua. Ordezkariek izendatzea eta aldatzea.

21.1. Aurreko Artikuluan aipatutako Instituzio publikoetako eta zentral sindikaletako organo eskudunek izendatuko dituzte dagozkien ordezkariak, eta, horretarako, Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko dizkiote izendapen horiek, Batzar Nagusia berri beharrekoren aurreko urtean, abenduaren hogeita hamaika baino lehen. Epe hori betetzen ez bada, galdu egingo da ezarritako ordezkariak, eta Gobernu Batzordeak izango du geratzen diren hutsuneak betetzeko aukera.

Gobernu Batzordeak Batzar Nagusia berriitu beharrekoaren aurreko urtean adieraziko du zenbat ordezkari dagozkion sindikatu bakoitzari azaroaren hogeita hamarra baino lehen. Horretarako, azken hauteskunde sindikalek urte horretako irailaren hogeita hamarrean islatzen dituzten datuak hartuko ditu oinarritzat, eta egun hartan Erakundera atxikita dauden kolektiboek duten pisu ekonomikoaren proportzioari begiratuko zaio.

21.2 Instituzioek edo Sindikatuek ordezkariak aldatzeko aukera izango dute, horretarako, Gobernu Batzordeari jakinarazi beharko diote bai aldaketa, bai egiten den izendapen berria.

## **22. Artikulua. Bilkuren izaera.**

Batzar Nagusiaren bilkurak ohikoak edo apartekoak izan daitezke, eta Gobernu Batzordeak deituko ditu.

Ohiko bilkurak urtean behin egingo dira, ekitaldi bakoitza amaitu eta ondorengo hiru hilero barruan.

Aparteko bilkurak Gobernu Batzordeak hala erabakitzean egingo dira. Horiek egiteko erabakia bere kabuz edo Batzar Nagusiko ordezkarien ehuneko hogeia eskatuta har dezake.

## **23. Artikulua. Deialdiak eta quoruma.**

23.1. Bilkuren deialdiak egiteko, idatzizko komunikazio bat bidaliko zaio Batzar Nagusiko ordezkari bakoitzari, gutxienez, hura egin baino hamar egun lehenago, eta, gehienez, hogeita hamar egun lehenago. Idatzi horretan, bilkura non, noiz eta zer ordutan egingo den adieraziko da, baita eguneko gai zerrenda ere.

Batzar Nagusiko ordezkarien ehuneko hamarrek bilkura egin baino lau egun lehenago eskatzen badute, eguneko gai zerrendan punturen bat sartzeko eskaria egiteko eskubidea izango dute. Batzar Nagusietan eguneko gai zerrendan jasotako gaiak soilik eztabaidatu ahalko dira.

23.2. Balioz eratua izateko, ordezkarien erdiak baino gehiagok bertaratu beharko dute Batzar Nagusira lehen deialdian. Gutxienerako hori osatuko ez balitz lehen deialdian, balioz eratuko da, bertaratutakoen kopurua edozein dela ere, ordu erdi geroago egingo den bigarren deialdian.

23.3. Batzar Nagusirako izendatutako ordezkariak bere burua beste ordezkariaren batean ordezkari ez dezaket. Ordezkaritza hori idatziz eman beharko da, eta berariazkoa izan beharko du bilkura bakoitzerako.

## **24. Artikulua. Erabakien baliozkotasuna.**

24.1. Batzar Nagusiak botoen gehiengo soiluz hartuko ditu erabakiak, direla bazkide osoen ordezkarienak, direla bazkide babesleen ordezkarienak.

24.2. Ohiko edo aparteko bilkuran Erakundearen Estatutuak onartu eta aldatzeko, edo hura beste erakunderen batekin bat egin edo federatzeko, berariaz deituko den aparteko Batzar Nagusian, aldeko botoa eman beharko dute botoa ematen duten ordezkarien bi herenek baino gehiagok, lehen deialdian, eta erdia gehi batek, bigarren deialdian. Berariazko Batzar Nagusi horretara, gainera, bazkide osoen eta bazkide babesleen gehiengoak bertaratu beharko du.

24.3. Erakundea desagiteko erabakia hartzeko, horren aldeko botoa eman beharko dute botoa ematen duten ordezkarien hiru laurdenek berariaz deituko den aparteko Batzar Nagusian. Berariazko Batzar Nagusi horretara bazkide osoen eta bazkide babesleen ordezkarien bi herenek bertaratu beharko dute.

24.4. Batzar Nagusiak balio osoz hartutako erabakiak Erakundea osatzen duten elementu pertsonal guztiek bete beharrekoak dira.

## **25. Artikulua. Batzar Nagusiko presidentea eta idazkaria.**

Batzar Nagusiko presidentea Gobernu Batzordeko presidentea edo hori legezko eran ordezkaturiko duena izango da, eta idazkaria, berriz, Gobernu Batzordekoa edo organo horrek haren ordezkari izendatzen duena. Idazkariak akta liburu bat eramango du, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz, eta dagozkion ziurtagiriak egin eta sinatu beharko ditu.

## **26. Artikulua. Batzar Nagusiaren eskuduntzak.**

### **26.1. Ohiko bilkuretan:**

- a) Erakundeko Estatutuak eta Prestazioen Araudia onartzea eta aldatzea.
- b) Ekitaldietako kontuak onartzea.
- c) Ekarpenen kopurua aldatzea, Institutio bakoitzari aplikagarri zaion Hitzarmen edo Akordio Kolektiboarekin bat etorriz.
- d) Gobernu Batzordea osatuko duten pertsonak izendatzea.
- e) Gobernu Batzordean izaten diren hutsuneak beteko dituztenak berrestea. Pertsona horiek Gobernu Batzordeak berak proposatutakoak izango dira.
- f) Bazkideek organo horretan aurkezten dituzten errekurtsioak ezagutzea.

## 26.2. Aparteko bilkuretan:

- a) Estatutu hauek aldatzea.
- b) Gobernu Batzordeko kide izango diren pertsonak izendatzea eta kargutik kentzea.
- c) Gobernu Batzordean izaten diren hutsuneak beteko dituztenak berrestea. Pertsona horiek Gobernu Batzordeak berak proposatutakoak izango dira.
- d) Erakundeko Prestazioen Araudia onartzea eta aldatzea.
- e) Beste erakunde batzuekin bat egitea edo federatzea.
- f) Erakundea desagitea eta Batzorde Likidatzailea izendatzea.
- g) Gobernu Batzordeak bere esku uzten dituenak.

## BIGARREN ATALA.- GOBERNU BATZORDEA

### 27. Artikulua. Izendapena eta osaketa.

27.1. Erakundearen zuzendaritza zuzena eta berehalakoa bere gain hartzea izango da Gobernu Batzordearen egitekoa. Batzar Nagusiko ordezkariak izendatuko dituzte, ordezkarien beraien artetik, Gobernu Batzordeko kideak, isilpeko bozketaz.

27.2. Hamasei kidek osatuko dute Gobernu Batzordea, eta horrela banatuko dira:

- Bazkide babesleak: Zortzi batzordekide, aldi berean, honela banatuta:
  - Euskadiko Foru Aldundi bakoitzak ordezkari bat izango du.
  - Euskadiko Udalerrien Elkarte (EUDEL) ordezkaturiko duten lau batzordekide.
  - Gainerako kolektiboek batzordekide bat izango dute. Gobernu Batzordeko instituzioetako kideek ezarritako irizpideei jarraiki izendatuko da batzordekide hori.

Batzar Nagusian bazkide babesleak ordezkaturiko dituzten ordezkariak izendatuko dituzte batzordekide horiek.

- Bazkide osoak: Zortzi batzordekide izango dituzte, eta bazkide osoek Batzar Nagusian duten ordezkariarekin proportzionala den moduan banatuko dira. Batzar Nagusian bazkide osoak ordezkaturiko dituzten ordezkariak izendatuko dituzte batzordekide horiek.

Batzordekideen kopurua eta horien banaketa aldatzeko aukera izango du Batzar Nagusiak, etorkizunean beste Instituzioren bat atxikitzen bada. Kasu guztietan, ordea, bazkide osoen ordezkariak aurreko paragrafoan adierazitako banaketari eutsiko dio.

## **28. Artikulua. Karguen izendapena, iraupena eta aldaketa.**

28.1. Gobernu Batzordeko kideak lau urterako izendatuko dira, berriz aukeratuak izan ahalko dira, eta presidentea, presidenteordea eta idazkaria izendatu beharko dituzte.

Presidente kargua bazkide babesleen ordezkariak izendatuko dute, beraien artetik.

Presidenteorde eta idazkari karguak bazkide osoen ordezkariak izendatuko dituzte, beraien artetik.

28.2. Instituzioek edo sindikatuak haiek ordezkatzeko dituzten ordezkariak alda ditzakete, eta horien hutsuneak Estatutu hauetako 27. Artikuluan arautzen den moduan bete beharko dira; Gobernu Batzordeak Instituzioak edo sindikatuak egindako izendapen berriei buruz, aldi baterako, egin dezakeen onarpenaren kalterik gabe.

## **29. Artikulua. Bilkuren izaera.**

Gobernu Batzordearen bilkurak ohikoak edo apartekoak izan daitezke, eta presidenteak deituko ditu.

Ohiko bilkurak, oro har, hiru hilean behin egingo dira gutxienez.

Aparteko bilkurak presidenteak bere ekimenez hala erabakitzen duenean edo batzordekideen herenak eskatzen dutenean deituko dira. Azken kasu horretan, ekitaldi bakoitzean ezingo dira aparteko sei bilkura baino gehiago deitzea eskatu.

## **30. Artikulua. Deialdiak eta quoruma.**

30.1. Bilkuren deialdiak egiteko, idatzizko komunikazio bat bidaliko zaio batzordekide bakoitzari, gutxienez, hura egin baino astebete lehenago eta hari dagokion eguneko gai zerrenda erantsiz.

Batzordekideen herenak eguneko zerrendan punturen bat sartzea eskatzeko eskubidea izango dute, bilkura egin baino lau egun lehenago Presidenteari hori adierazten duen idatzia bidaliz gero.

30.2. Gobernu Batzordea balio osoz eratua izateko, bere kideen erdiak baino gehiagok bertaratu beharko dute bilkuretara.

30.3. Batzordekideek beste batzordekide batengan ordezkariak deitzea bere burua, idatziz eta berariaz Gobernu Batzordearen bilkura bakoitzerako.

### 31. Artikulua. Erabakien baliozkotasuna.

Gobernu Batzordearen erabakiak emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira, direla bazkide osoak ordezkatzten dituzten batzordekideena, direla bazkide babesleak ordezkatzten dituzten batzordekideena.

### 32. Artikulua. Gobernu Batzordeko kideen egitekoak eta ahalmenak.

#### 32.1. Presidentea.

Hauek izango dira presidentearen egitekoak:

- a) Gobernu Batzordea ordezkatztea.
- b) Gobernu Batzordeko eta Batzar Nagusiko bilkuren buru izatea.
- c) Gobernu Batzordeko bilkurak deitzea eta horien eguneko gai zerrenda egitea.
- d) Erakundeko egiteko administratibo, tekniko eta finantzarioak zuzentzea.
- e) Gobernu Batzordeak bere esku uzten dituen zuzendaritza, egiaztapen eta kudeaketa funtzioak betetzea.
- f) Estatutu hauek edo gainerako lege xedapenek esleitzen dizkioten egitekoak.

Gobernu Batzordeak hala erabakitzen badu, presidente karguan jarduteagatik dirua jasoko da.

#### 32.2. Presidenteordea.

Hauek izango dira presidenteordearen egitekoak:

- a) Presidentea ordezkatztea hura falta denean, gaixorik dagoenean edo haren beharra eragiten duen beste arrazoiren bat gertatzen denean.
- b) Gobernu Batzordeak bere esku uzten dituen guztiak.

Gobernu Batzordeak hala erabakitzen badu, presidenteorde karguan jarduteagatik dirua jasoko da.

#### 32.3. Idazkaria.

Hauek izango dira idazkariaren egitekoak:

- a) Erakundeko gobernu organoen aktak idaztea, presidentearen oniritziz.
- b) Erakundeak egiten dituen ziurtagiriak egitea.

### 32.4. Batzordekideak.

Hauek izango dira batzordekideen egitekoak:

- a) Beren esku uzten diren egitekoak burutzea, Gobernu Batzordeko bilkuretara joatea, eztabaidetan eta hartzen diren erabakietan parte hartzea eta Erakundeak karguei beharrezkoa den laguntza ematea.

### 33. Artikulua. Gobernu Batzordeko kideen obligazioak.

Gobernu Batzordeko kide guztiek hau egiteko obligazioa dute:

- a) Erakundea era arduratsuan kudeatzea, eta Batzar Nagusiari kontu ematea.
- b) Karguari dagokion sekretu profesionala gordetzea, Gobernu Batzordeak ezagutzen dituen gaitan.
- c) Gobernu Batzordeko bilkuretara joatea. Hiru bilkuratara justifikaziorik gabe huts eginez gero, sei hilabetez kargugabetuko dira batzordekideak. Berriz gauza bera eginez gero, eta Batzordeak hala erabakitzen duenean, behin betiko kargugabetuko dira, eta ordezkatzeko duen Instituzioari edo sindikatuari jakinaraziko zaio, dagozkion ondorioetarako.

### 34. Artikulua. Gobernu Batzordearen egitekoak.

Hauek izango dira Gobernu Batzordearen egitekoak:

34.1. Erakundea ordezkatzeko.

34.2. Eskatutako kolaborazio tekniko eta administratiboak izendatzea, berrestea edo kargugabetzea.

34.3. Erakundearen inbertsio plana onartzea.

34.4. Ondasunak eta eskubideak eskuratzea, zamatzea eta besterentzea, eta mota guztietako ekintzak eta kontratuak egitea eta mota guztietako akzioak egitea.

34.5. Batzar Nagusiari Estatutu hauen aldaketa proposatzea, bai eta Prestazioen Araudiaren onarpena eta aldaketak ere.

34.6. Urteko kontuen onarpena, finantza egoerak eta amaitutako ekitaldien kudeaketa txostenaren onarpena proposatzea Batzar Nagusiari.

34.7. Ekarpenen aldaketa behin-behingo onartzea eta Batzar Nagusiari horien aldaketa eskatzea. Egindako proposamenak bat etorri beharko du, Euskadiko Instituzio, Erakunde edo Sozietate publiko bakoitzerako, horiei dagozkien Hitzarmen edo Akordio Kolektiboetan ezarritakoarekin.

34.8. Bazkideak onartzea.

34.9. Batzar Nagusiaren bilkurak deitzea, horien eguneko gai zerrenda finkatzea eta hartutako erabakiak betearaztea.

34.10. Estatutu hauen aplikazioan sor daitezkeen zalantzak argitzea.

34.11. Prestazioak emateko ebazpenak onartzea.

34.12. Ezintasun prestazioak onartzeko behar den Batzorde Medikoaren aurretiazko irizpenaren baldintza ezabatzea erabaki dezake aldi baterako edo behin betirako; betiere, hartutako erabaki horrek dagokion kolektibo osoari eragiten badio.

34.13.- Erakundearen kudeaketan lagunduko duten batzorde edo organo delegatuak izendatzea.

34.14.- Hutsegite larriei edo oso larriei jarri beharreko zehapen ekonomikoen zenbatekoa zehaztea.

34.15. Batzar Nagusiarentzat berariaz gordeta ez dauden beste eskuduntza guztiak.

Gobernu Batzordeak, berariazko hitzarmen bitartez, eskubidea dauka atal honetan zerrendatutako eskumenak Presidenteari edota Presidenteordeari emateko, 34.3; 34.5; 34.6; 34.7; 34.9; 34.10; 34.12; 34.13 eta 34.14 puntuetan jasotakoak izan ezik.

## IV. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

### LEHEN ATALA.- ERAKUNDEAREN FINANTZAKETA

#### 35. Artikulua. Baliabide ekonomikoak.

Hauek izango dira Erakundeak izango dituen baliabide ekonomikoak:

- a) Bazkide babesleek eta bazkide osoek egindako ekarpenak, Instituzio bakoitzari dagozkion Hitzarmen edo Akordio Kolektiboekin bat etorriz.
- b) Aseguru kontzeptuan bildutako kuotak.
- c) Erreserben inbertsioetik jasotako etekinak.
- d) Legezko izan daitezkeen sarrera oro.

#### 36. Artikulua. Administrazio gastuak.

Administrazio gastuak urtero kalkulatu dira. Aurrekontu horiek ez dute Araudiak ezartzen duen muga gaindituko, hau da, kudeatutako ondasunaren % 2a.



### 37. Artikulua. Kontularitza.

Kontularitza oharpen bikoitzeko sistemaz eramango da, sarrerak eta gastuak beren izaeraren arabera eta behar den bezala bereiziz. Liburuak horiek izapidetzeko eskumena duen agintariak legezkatuko ditu, Gobernu Organoen eskura jarriko dira eta Batzar Nagusia egiteko jarri den eguna baino lehen eman beharko dira ezagutzera, haren esku egongo baita horiek onartzea.

## BIGARREN ATALA.- FINANTZA ERRESERBAK

### 38. Artikulua. Erreserba motak.

Erreserbak kudeatzeko irizpideak zuhurtasuna, eraginkortasuna eta gardentasuna izango dira, eta inbertitu egingo dira bazkideek eskuratu dituzten eskubideak bermatzeko.

Hauek dira, duten helburuaren arabera, Erakundeak izango dituen erreserbak:

#### a) Mutua fondoa.

Erakundearen berezko fondoak dira, unean-unean eragiten dioten legezko baldintzak bete beharko ditu, eta horien kopurua eta sortzapen irizpidea Batzar Nagusiak erabakiko du, Gobernu Batzordeak egindako proposamenari jarraituz.

#### b) Kaudimen fondoa.

Erakundearen berezko fondoak dira, unean-unean eragiten dioten legezko baldintzak bete beharko ditu, eta horien kopurua Batzar Nagusiak erabakiko du, Gobernu Batzordeak egindako proposamenari jarraituz. Fondo horren helburua aseguratutako prestazioak kalkulaterakoan erabilitako hipotesi aktuarialetan etorkizunean egon daitezkeen balizko desbideratzeak estaltzea izango da.

#### c) Erreserba matematikoa.

Erreserba matematikoa Erakundeak dituen obligazioen balioa adierazten du. Kapitalizazio indibidualeko finantza sistemen eta sistema aktuarialen bidez kalkulatzen da.

Hauek dira, obligazioen zenbatekoa kalkulatzeko unea kontuan hartuta, erreserba matematiko motak:

- Epemugara iritsi gabeko obligazioen erreserba matematikoa, bazkide osoei dagokiena. Egindako ekarpenak eta horiekin egindako inbertsioen emaitzek osatuko dute, egozgarriak zaizkion gastuak kenduta.

- Epemugara iritsitako obligazioen erreserba matematikoa, bazkide pasiboei eta onuradunei dagokiena. Erreserba horren zenbatekoa etorkizunean egin beharreko ordainketek egun duten balioarekin bat etorriko da.

d) Beste erreserba batzuk.

Batzar Nagusiak, Gobernu Batzordearen proposamenez, beste erreserba batzuk eratu ahalko ditu Erakundearen funtzionamendu onari eta prestazio berriak eman beharrari begira.

## HIRUGARREN ATALA.- ESKUBIDE EKONOMIKOAK

### 39. Artikulua. Eskubide ekonomikoak.

Eskubide ekonomikoek prestazioak sortzeko eratuta dagoen kapitala zehazten dute, eta gertakari eragilea suertatzen den unean prestazio horiek izango duten zenbatekoa.

Aurrezki kapitalizatua izango da eskubide ekonomikoak eratuko dituen, eta, hala badagokio, kapital aseguratua, Prestazioen Araudian adierazten denaren arabera.

## V. KAPITULUA. PRESTAZIOAK

### 40. Artikulua. Prestazio motak.

Erakundeak prestazio hauek eskainiko ditu:

- a) Erretiroa.
- b) Ezintasun iraunkorra.
- c) Alarguntasuna.
- d) Zurztasuna.
- e) Heriotza.
- f) Zehazten diren beste batzuk; betiere, Erakundearen helburu sozialarekin eta aplikagarria den araudiarekin bat badatoz.

Adierazitako prestazioak jasotzeko baldintzak eta horien ezaugarriak Prestazioen Araudian garatuko dira.

#### **41. Artikulua. Prestazioen arteko bateragarritasuna.**

Erakundeak ematen dituen prestazioak bateragarriak dira bazkide pasiboek eta onuradunek Gizarte Segurantzaren bidez eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen bidez jaso ditzaketenekin.

#### **42. Artikulua. Prestazioak jasotzeko eskubidea.**

Erakundeko bazkide osoek eta horiek direla kausa, haien aldeko eskubideak izan ditzaketenek, izango dute Estatutu honetan ezarrita dauden prestazioak jasotzeko eskubidea; betiere, Prestazioen Araudian prestazio bakoitzerako jasotzen diren betekizunak bertan definitzen diren baldintzetan betetzen badira.

## **VI. KAPITULUA. DIZIPLINA ERREGIMENA**

### **LEHEN ATALA.- HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK**

#### **43. Artikulua. Hutsegiteak.**

Bazkide osoek, bazkide pasiboek eta onuradunek erantzukizuna izango dute atal honetan ezartzen diren hutsegiteak egiten badituzte.

#### **44. Artikulua. Hutsegite motak.**

Hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

##### **44.1. Hutsegite arinak izango dira:**

- a) Estatutuetakoa arauak, erregelamenduzkoak eta funtzionamendu arauak ez betetzea, desenkusa ezina den ezjakintasunagatik.
- b) Erakundeari helbide aldaketak ez jakinaraztea.

##### **44.2. Hutsegite larriak izango dira:**

- a) Norberaren edo norberaren onuradunen egoeran izan daitezkeen aldaketak ez jakinaraztea, jaso beharreko prestazioetan eragina izan badezakete.
- b) Artikulu honetako aurreko atalean adierazten diren hutsegite arinak errepikatzea, bi urteren buruan.

##### **44.3. Hutsegite oso larriak izango dira:**

- a) Borondatez edo maltzurkeriaz, prestazioak edo gastuak eragiten dituzten edo eragin ditzaketen gaixotasunak edo istripuak ezkutzea, itxuratzea, eragitea edo areagotzea.

b) Iruzuraren bidez edo nahita, helburu horietara daramaten bitartekoak jartzea, Erakundearen interesen kaltetan.

c) Artikulu honetako 2. atalean adierazten den hutsegiteren bat errepikatzea, bi urteren buruan.

#### **45. Artikulua. Zehapenak.**

Hauk izango dira, oro har, aurreko Artikuluan adierazitako hutsegiteek izango dituzten zehapenak:

**45.1.** Hutsegite arinengatik, hitzezko edo idatzizko ohartarazpena.

#### **45.2. Hutsegite larriengatik:**

a) Ohartarazpen publikoa, Gobernu Batzordeak erabakitzen duen publizitatea erabiliz, zehapena erduzkoa izan dadin.

b) Zehapen ekonomikoak. Horren zenbatekoa Gobernu Batzordeak erabakitakoa izango da, eta, gehienez, kuoten urtebeteko ordainketari dagokiona.

c) Prestazioak partzialki etetea, hilabete baino luzeagoa izango ez den epe batez.

#### **45.3. Hutsegite oso larriengatik:**

a) Prestazioak partzialki edo osoki etetea, sei hilabete baino luzeagoa izango ez den epe batez.

b) Bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea eta Gobernu Batzordearen erabakiz aplikatutako zehapen ekonomikoa. Zehapen ekonomiko hori, egindako hutsegitearen larritasunari erreparatuz, gehienez, bidegabeki jasotakoaren halako hamar aldiz handigoa izan daiteke; eta, gainera, hala badagokio, Erakundetik kanporatzea erabaki daiteke.

c) Hutsegiteak balioespen ekonomikorik ez badu, Gobernu Batzordeak erabakitako zenbatekoa izango duen zehapena ezarriko da. Horren zenbatekoa, gehienez, kuoten bi urteko ordainketari dagokiona izango da, eta, gainera, hala badagokio, Erakundetik kanporatzea erabaki daiteke.

d) Kanporatzea.

**46. Artikulua. Espedientea.**

Hutsegiteen espedientearen agiri guztiak ale bikoiztuan beteko dira, eta ale bat Erakundearen artxiboan egongo da pertsona bakoitzaren espedientearekin batera. Hori guztia honela egingo da:

46.1. Hutsegiteen lehen kalifikazioa egitea Erakundeko presidentearen esku egongo da, eta idatziz jakinaraziko dio hura interesatuari, hutsegiteari dagokion zehapen proposamenarekin batera; eta, erruduntzat jotakoak, deskargua egiteko aukera izango du hamar laneguneko epean. Epe hori igarotakoan, presidenteak, deskargua jasota edo jaso gabe, lehen auzialdiari dagokion ebazpena emango du.

46.2. Interesatuak Gobernu Batzordera jo dezake zehapena errekurritzeko, eta hark kalifikazioa eta zehapena berretsi edo aldatu egingo du behin betiko, eta ez da errekurtsu gehiago jartzeko aukerarik izango.

46.3. Jarritako zehapena kaleratzea bada, zehapena jaso duen pertsonak Batzar Nagusira jo dezake azken auzialdian. Horretarako, hilabeteko epea izango du zehapena jakinarazten zaionetik. Batzar Nagusiak hura jaso eta ondorengo bilkuran erabakiko du dagokiona. Errekurtsua jartzeak ez du inoiz etengo, kasu honetan, zehapenaren eraginkortasuna.

**47. Artikulua. Epeak.**

Aurreko Artikuluan aipatutako deskarguak aurkezteko epeak hutsegiteei dagozkien erabakiak jakinarazten direnetik zenbatuko dira. Hauek dira epe horiek:

- Hamabost lanegunekoa, hutsegite arinetan.
- Hemezortzi lanegunekoa, hutsegite larrietan.
- Hogeita bat lanegunekoa, hutsegite oso larrietan.

Hutsegite arinek lau hilera preskribituko dute, egin zirenetik kontatzen hasita; hutsegite larriek sei hilera, eta oso larriek hamabi hilera.

**48. Artikulua. Betearazpena.**

Zehapen guztiek, kaleratzea izan ezik, errekurtsuak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina, espedientea jaso duenak horiek aurkezteko zuen eskubidea gauzatu ez badu; edo, bestela, behin betiko erabakia eman eta hurrengo egunetik aurrera.

#### 49. Artikulua. Indargabetzea.

Gobernu Batzordeak urtero indargabetu ditzake ezarritako zehapenak, bazkideen aurreko zehapenen oharpenak baliogabetuz. Horren ondorioz, berriz ere indarrean izango dira Erakundearekiko dituzten obligazioak.

### VII. KAPITULUA. ERAKUNDEA DEUSEZTATZEA ETA DESEGITEA

#### 50. Artikulua. Deuseztatze kausak.

50.1. Batzar Nagusiak erabaki dezake, aparteko bilkuran, Erakundea desegitea, 24.3. artikuluko baldintzak betez eta arrazoi hauetako batengatik:

- a) Kolektiboa desagertu delako.
- b) Beste erakunderen batekin bat egin edo beste erakunderen batek hura bereganatu duelako.
- c) Haren ondasunak galdu dituelako, dituen helburuak betetzea ezinezko egiten badute.
- d) Horrela agintzen duen legezko araua onartu delako.

50.2. Desegitea gertatzen bada, epemuga igarota duten obligazioen erreserbak eratu, eta Erakundearen ondarea egoki banatuko da bazkideen artean.

#### 51. Artikulua. Batzorde Likidatzailea.

Erakundea desegitea erabakita, Gobernu Batzordeak batzorde likidatzaile bat izendatuko du, beharrezkoak diren tramiteak egiteko.

Hauek osatuko dute batzorde likidatzailea: Erakundeko bazkideen artean aukeratutako hiru kidek, Gobernu Batzordeko bi batzordekidek eta organo horretako presidentek. Erakundeko teknikari batek ere parte hartuko du, eta hitza izango du, baina ez botorik.

#### 52. Artikulua. Batzorde likidatzailearen egitekoak.

Batzorde likidatzaileak likidazio arauak onartu eta betearaziko ditu, aitortutako prestazioak eta eskuratutako eskubideak balioetsi, eta, ondoren, ondarea bazkide osoen, bazkide pasiboen eta onuradunen artean hainbanatuko du.

Likidazioa egin ondoren soberakinik balego, gizarte jardueretara bideratu beharko da.

### AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek 2009ko martxoaren 25ean jarriko dira indarrean, eta data horretan bertan derogatuko dituzte ordura arte indarrean zeudenak.